



**REPS2020** **BILBO**

VIII. KONGRESUA  
GIZARTE POLITIKAREN ESPAINIAKO SAREA 

## **PANEL-PROPOSAMENAK IGORTZEKO JARRAIBIDEAK REPSen VIII. Kongresua - Bilbo2020**

### **Panel-proposamenak aurkeztea**

2019ko irailaren 10etik urriaren 10era bitartean egongo da zabalik REPS VIII. kongresua – Bilbo 2020 ekitaldirako panel-proposamenak igortzeko epea.

Proposamenak egiteko, ezinbestekoa da, lehenik eta behin, [www.reps-bilbao.com](http://www.reps-bilbao.com) webgunean sartu eta kongresuko parte-hartzaileen atalean erabiltzaile gisa alta ematea (erabiltzaile gisa alta emanda egon beharko dute paneletako taldeak osatuko dituzten kide guztiek). Kongresuarekin zerikusia duten gestio guztiak egiteko erabili beharko dira alta ematerakoan sortuko diren erabiltzaile eta pasahitza (panel-proposamenak igortzeko, abstract- edo laburpen-proposamenak bidaltzeko, hitzaldiak eta komunikazioak helarazteko, kongresuan izena emateko eta abar). Gauzak horrela, dagokion erabiltzaile eta pasahitzarekin hasi beharko da saioa proposamenak eta abstract delakoak igortzearekin zerikusia duen edozein gestio egiteko.

Alta eman eta saioa hasi eta gero, “panel-proposamenak bidali” (Envío de propuestas de panel”) erlaitzean sartu behar da, dagokion formularioan sartu eta honako informazio hau emateko:

- Izen-abizenak, instituzio-afiliazioa eta panel bakoitzeko koordinatzaileekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoak, gehienez ere lau;
- Proposatutako ekarpenaren (panela) izenburua;
- Laburpena (gehienez ere 1.600 hitz). Bertan, honako hauek gehitu beharko dira: proposamenaren justifikazioa, panelaren aurretiko antolakuntza eta aurreikusitako hitzaldi motak.
- Panela deskribatzeko gako-hitzak, gehienez ere 5;

Datuak bete eta gero, sakatu “gorde eta jarraitu” (“guardar y continuar”), eta hurrengo pantailan hautatu “Ekarpena eginda” (“Contribución completa”) proposamena konfirmatu eta gordetzeko.

Saioa hasita dagoela, bidalitako ekarpenak (proposamenak) ikusi, aldatu eta/edo ezabatu egin daitezke ekarpenen atalean. Proposamenen kudeaketa-sistemak mezu elektroniko bat bidaliko du proposamenak aldatzen edo/eta ezabatzen diren bakoitzean. Urriaren 10etik aurrera ezin izango da ezer aldatu, ezta igorritako proposamenetan atzera egin edo proposamen berriak igorri ere.

Batzorde zientifikoak ebaluatuko ditu jasotako proposamenak, eta kongresurako hautatuak izan diren panelak kongresuko webgunean (<https://www.reps-bilbao.com>) emango dira

aditzera 2019ko urriaren 30ean. Horrez gain, mezu elektronikoa bat bidaliko zaie panel-proposamenak igorri dituzten erabiltzaile guztiei.

Pertsona bakoitzak paneletarako bi proposamen igorri ahal izango ditu gehienez ere. (Koordinazio-talde bakoitzak ere ezingo ditu bi proposamen baino gehiago bidali)

Panel-proposamenak gaztelaniaz, katalanez, euskaraz, galegoz edo ingelesez idatzita egon daitezke.

Batzorde zientifikoak zerikusia duten proposamenak taldekatzeko eskubidea izango du, betiere operazio horretan interesa duten proposatzaileei jakinarazi eta gero.

### **Panel baten koordinazioaren ardura hartzen dutenen erantzukizunak**

Paneletako koordinatzaileak panel horretara bideratutako laburpenak (abstract-ak) jasotzeaz, ebaluatzeaz eta hautatzeaz arduratuko dira. Abstract horiek bidaltzeko epea azaroaren 1etik abenduaren 30era bitartekoa izango da.

2019ko abenduaren 30etik 2020ko urtarrilaren 15era bitartean, koordinatzaileek ebaluatu egingo dituzte jasotako abstract horiek. Hartara, hiru aukera izango dituzte:

- “Hitzaldi” gisa onartutako laburpena (paneletako parte-hartzaileei helaraziko zaie ekarpena, eta ahoz aurkeztuko da lan-saioan).
- “Komunikazio” gisa onartutako laburpena (paneletako parte-hartzaileei helaraziko zaie ekarpena, baina ez da lan-saioan aurkeztuko).
- Ez onartua. Kasu horretan ez onartzeko arrazoia eman beharko da.

Bajaren bat egotekotan, komunikazioak hitzaldi bilakatuko dira.

Halaber, paneletako koordinatzaileek beren lan-saioetan sortzen diren parte-hartze eta eztabaidak moderatu beharko dituzte. Horrez gain, saio bakoitzean egingo diren aurkezpenen ordena eta hitzaldi bakoitzari esleitutako denbora ere ezarriko dituzte.

Panel bakoitzeko egingo den saio kopuruari buruzko azken erabakia kongresuko batzorde antolatzaileak erabakiko du “call for papers” izeneko fasea itxi eta gero. Hautaketa eginda dagoenean, koordinatzaileek eta batzorde antolatzaileak berrikusi egingo dituzte kongresu osteko akta ofizialetan argitaratuko diren lan osoak entregatzeko eza-rritako epeak.

Paneletako koordinatzaileek ezingo dute hitzaldi edo komunikaziorik aurkeztu koordinatzen duten panelean, baina bai, ostera, beste panel batzuetan.

Panelak koordinatzeko arduradunek kongresuan izena emateko tarifa murriztua eskatu ahal izango dute, eta kongresua egin eta gero panela koordinatu izanaren ziurtagiria emango zaie.

Gainera, koordinatzaileek kongresuko idazkaritzaren laguntza izango dute beren zeregin guztiak aurrera eraman ahal izateko.